

**2016KO MAIATZAREN 26AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita sei

HILABETEA: Maitza.

URTEA: Bi mila eta hamasei

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: AITOR ALDASORO ITURBE

BILDUAK:

EAJ-PNV udal taldekoak:

LEIRE ARTOLA UGALDE
MALU VALLES FERNANDEZ
XABIER MATARRANZ RICO
EDORTA DIAZ DEL RIO
IRMA ARNAIZ GUILLEN
ENKARNI ARRIETA TELLERIA
JON OLANO ARRESE
ELENA RUIZ ZABALA

Beasaingo EH BILDU udal taldekoak

KOLDO AGIRRE MUJICA
GARBIÑE ZURUTUZA FERNANDEZ
AITOR LARBURU IZAGUIRRE
MIREN AMAIA BARANDIARAN VELEZ DE MENDIZABAL
AITOR MARTIN URTEAGA OSINALDE
ZEZILIA HERRADOR GARIN

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak udal taldekoak:

SANTIAGO URDAMPILLETA DOS SANTOS
ANGEL REDONDO FERNANDEZ

IDAZKARIA: ITZIAR AROSTEGI APAOLAZA

Bilera honetan LURDES ALEGRIA LASA, kontuhartzaileak, parte hartzen du. Baita ere Aitziber Yurrebaso andreak, bat-bateko itzultzaile lanetan.

1.- AURREKO AKTA. 2016ko apirilaren 28ko akta onartzeko proposamena.

2016ko apirilaren 28ko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute berarekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- KREDITU ALDAKETA. Kreditu gehigarriak onartzeko proposamena.

Ezagutzera eman da hazienda batzordeko proposamena:

“GASTUAK ETA KREDITU ALDAKETA EGITEKO PROPOSAMENA

Zerrendatutako gastuak gauzatzea premiazkoa denez -horien gauzatzea ezin baita atzeratu-, zerbitzu horiek egiteko erritmoa eteteak edo, hala badagokio, horien kudeaketa mailak behera egiteak kalte handiak sortuko bailituzke, eta hauek finantzatzeko aurrekontu kredituak nahikoak ez direla edo krediturik ez dagoela kontuan hartuz, proposamen hau egin da indarrean dagoen aurrekontu egiturari egokituta.

Aurrekontuko kontu saila	Kontzeptua	Kredituak		
		Egunoak	Aldaketak	Behin betiko
1.5000.601.153.20 .06 1.9000.685.920.00 .99	Azp. eta urb.: Oriamendi kalea Udalaren logorako euskarriak	0,00 0,00	310.000,00 14.750,00	310.000, 00 14.750,0 0
GUZTIRA		0,00	324.750,00	324.750, 00

KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA

Sarrerren kontzeptuak edo Gastuen bajak	Izena	Sarrera handiagoak Gastuen baja
870.01	Diruzaintzako gerak. gastu orokorretarako	310.000,00
1.9000.212.333.20.01	Usurbeko erakusketa aretoan igogailua	10.400,00
1.9000.601.337.30.02		4.350,00

	<i>Udal lorategietan hobekuntzak</i>	
GASTUEN GEHIKUNTZAK GUZTIRA		324.750,00

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko iritzi hauek azaldu dituzte:

Santi Urdampilleta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Nosotros en principio vamos a votar a favor, puesto que los informes del aparejador, del Consorcio de Aguas, así como el del técnico de la liquidación de la obra, coinciden. No obstante queremos dejar muy claro que el Ayuntamiento debe pedir responsabilidades. Es por eso que el grupo socialista exige al Alcalde un compromiso firme en este Pleno en cuanto a la exigencia de dichas responsabilidades a ASTAZALDI, por su nefasta, incompetente e irresponsable gestión en este Ayuntamiento. En nuestra opinión son los únicos culpables del desvío y de la consecuente modificación de créditos de 324.00,00 € de desfase.”

Aitor Aldasoro Iturbe jaunak (EAJ-PNV): “Decir por nuestra parte que ya en urbanismo se decidió y está recogido en acta que se iniciarán los trámites del expediente de responsabilidad contractual”.

Aitor Larburu jaunak (EH BILDU): “Gure botoa aurkakoa izango da. Ez dakigu logoak jartzeko euskarriak batzorderen batetan aipatu diren eta ezta ere zein den euskarri horien helburua. Inolako jakinarazpenik egin gabe orain kreditu aldaketa egitea, ez dugu ondo ikusten.

Oriamendi kaleko likidazioari buruz esan, batzordean behin eta berriz hitz eginda dugun gaia dela, Guk ASTAZALDI obra-zuzendaritzak egindako likidazioarekin bat egiten dugu eta gure ustez hori da onartu beharrekoa. Beraz, aldaketa hau ez dugu inolaz ere onartzen. Santiri esan arriskutsua dela demagogia egitea eta deskalifikazioak botatzea. ASTAZALDIk legealdi batean egin du lana eta gure ustez herri hau nola hobetu den lau urteetan badakigu. Horrelako gauzak esatea...ez dakit, zein arazo duzun zuk ASTAZALDIrekin..., baina zuk konpondu beharrekoa da eta ez Plenoan horrelako adierazpenak egitea. Gure ustez Oriamendi kalean, lan txukuna egin zen eta gu likidazio hori hartzen dugu aintzakotzat.”

Alkatea jaunak (EAJ-PNV): “Nik ere gutxienez, aktan jasota gera dadin, azpimarratu nahi nuke ez dela likidazio bakarra kanpokoari egitea eskatu zaiona. Aparejadoreak bere likidazioa egin zuen eta baita ere Ur Kontsortzioak. Ordainketa egitea onartu zenean, guk ez genuen ardura, BILDUK baizik. Kasualidadea da 33 potzu egin beharra izatea, aurrekontuetan eta planoetan ez egotea, baina errealitatean horiek eginda egotea. Gastu hori egin da. Likidazio bat edo bestea onartzea bale, baina hor arrazoien batzuk egon beharko lirateke, bat edo beste onartzeko. Horiek ikusi daitezkeen gauzak dira. Kontutan izan behar dugu, obra baten atzean langileak

daudela. Lehenbailehen ordaindu dezagun ordaindu behar dena, gero bakoitzak izango du bere ardura.

Euskarriak munizipala den futbol zelaian jarri dira, hain zuzen ere, ikus daiteken munizipala dela, Saski baloi kantxan ere udalaren logoa ezarriko da. Batzuetan ez zeudenez jarri egingo dira. Beste batzuetan zaharrak zeudenez, berriak egingo dira. Onartzen dugu batzordetik ez dela pasa, eta beharbada pasa egin beharko litzateke. Bistakoak dira egin diren aldaketak eta gure ustez falta zirenak.”

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 11 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak udal taldekoak).

Aurkako botoak: 6 (EH BILDU)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. 3. Kreditu gehikuntzen bidez 324.750,00 euroko zenbatekoaz eta eranskinean zehazten den moduan finantzatzen diren kreditu aldaketak hasiera batean onartzea.

Bigarren. Aipatutako akordioa jendaurrean jartzea, 15 eguneko epean bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ahal izateko. Alegaziorik jasoko ez balitz, behin-betirako onartutzat emango da.

3.- KONTU OROKORRA. 2015eko Kontu Orokorra eta ondoko egiaztapen osoaren emaitzaren txostena.

Alkate jaunak, ondorengo proposamenaren berri eman du:

“AURREKARIAK

1.- 2016ko apirilaren 25ean Kontuetaarako Batzorde Bereziak egindako bileran Kontuhartzaileak ondorengoaren berri eman zuen:

- 2015eko ekitaldiari dagokion Aurrekontu Orokorraren Kontua osatu dela, ondorengo dokumentuez osatuta: Aurrekontuaren likidazioa, Egoera Balantzea, Galera eta Irabazien Kontua, Diruzaintzako gerakina eta indarrean dagoen legeriak eskatutako gainerako Eranskinak.

- Abenduaren 19ko, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauaren 72 artikulua eta Aurrekontua Gauzatzeko Udal Araudiaren 12. Artikuluak xedatzen duten Ondoko kontrol kontuhartzaile osoari buruzko txostena.

2.- Aipatutako kontuei buruzko jendaurreko iragarkia 2016ko maiatzaren 4an argitaratu zen G.A.O.ean, eta 15 lanegun egon behar zuen jendaurrean.

Aipatutako epea igaro denez, inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, Hazienda Batzordeak Udalbatzaren onespenerako jartzen du 2.015 ekitaldiko Kontu Orokorraren onspena eta Ondoko kontrol kontuhartzaile osoari buruzko txostena.

Labur biltzeko esan, 2015eko aurrekontuaren likidaziotik ondorioztatutako datuak, ondorengoak dira: udalaren kasuan, gastuen kasuan gauzatze maila, %81ekoa izan da eta sarrerei dagokionez, %92a. Euskaltegiari dagokionean, gastuen kasuan gauzatze maila, %86a izan zen eta sarrerei dagokionez berriz, %92a. Musika Eskolan, %100a izan zen gastuen gauzatze maila eta sarrerei dagokionez berriz, %96a. Kiroldegia dagokionez gauzatze maila gastuetan, %85a eta sarreraren gauzatze maila, %77a.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

4.- AUTO KARABANEN ETA BIZITOKI IBILGAILUENTZAKO ZERBITZU GUNEAREN ORDENANTZAREN ALDAKETA. Aldaketa.

Ezagutzera eman da, antolakuntza batzordearen proposamena, hain zuzen ere, Autokarabanen eta bizitoki ibilgailuentzako zerbitzu-gunea arautzen duen udal ordenantzaren aldaketari hasierako onspena emateari buruzko, 6. artikuluari dagokionean, aurrerantzean arau-hauste isunen kopurua ondorengo izateko: arinak: 80,00 €, larriak: 200,00 € eta oso larriak: 500,00 €.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz bozketa eginda, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. Autokarabanen eta bizitoki ibilgailuentzako zerbitzu-gunea arautzen duen udal ordenantzaren aldaketari hasierako onspena ematea.

Bigarren. Apirilaren 18ko 781/1986 Erret Dekretu Legegileko 56. eta ELOLEko 49. artikuluan xedatuaren arabera, erabakia jendaurrean jartzea da 30 eguneko epean, murtziloak eta iradokizunak aurkezteko. Epe horretan ez bada alegaziorik aurkezten, behin-betikotzat onartua geldituko da.

5.- KONTUHARTZAILEAREN TXOSTENA, ekonomiko-finantziario plana ordezkatzeko duena.

Ondorengo txostenaren berri eman da:

“GAIA.- Plan ekonomiko-finantzarioa ordezkatzeko duen Finantza Iraunkortasuna Ebaluatzeko eta Egiartzatzeko Txostenaren Komunikazioa Udalbatzarrari.

AURREKARIAK

1.- Alkateak onartutako 2.015eko Aurrekontuaren likidazioak, ZOR PUBLIKO eta DEFIZITAren helburuak betetzen dituen arren, EZ DU BETETZEN GASTUAREN ARAUA, hain zuzen ere, gastu konputagarriaren bariazioa, gehienez, %1,3an ezarrita egon arren, 2015ko aurrekontuaren likidazioak aurreko urtearekiko %4,89ko bariazioa ondorioztatu du.

2.- Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoaren 21.1 artikulua ondorengo xedatzen du: Aurrekontu-egonkortasuneko

helburua, zor publikoko helburua edo gastu-araua bete ezean, administrazio urratzaileak urtebeteko epean haiek bete ahal izatea bermatuko duen plan ekonomiko-finantzario bat prestatu beharko du.

3.- Gipuzkoako Forua Aldundiak, 1/2013 Foru Arauak emandako eskumena erabiliz, "Finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan jarraitu beharreko jarraibidea" onartu du. Araudi honen 3 erregelari xedatzen denez, gastuaren araua betetzen ez duten entitateek, plan ekonomiko-finantzarioaren ordeztu, komunikazio bat aurkeztu diezaioke Udalbatzari, Kontuhartzaileak sinatuta, entitatearen finantza iraunkortasuna aztertu, ebaluatu eta egiaztatuko duena, baldintza hauek guztiak betetzen badituzte:

- 2014ko aurrekontuaren likidazioan, edo horren ezean bere aurreikuspenean, diruzaintza eta aurrezki garbia positiboak izatea.
- 2015erako defizit eta zor helburuak betetzea.

Aipatutako xedapenetan adierazitakoa betetz, igortzen da ondorengo

TXOSTENA

1.- 2014ko aurrekontua, DIRUZAINZAKO GERAKIN ETA AURREZKI GARBI POSITIBOekin likidatu zen.

2.- Aldi berean, 2015eko urtarrilaren 29an Udalbatzak ekitaldi horretarako aurrekontu Orokorra onartu zuen, aurrekontu-egonkortasuneko eta zor publikoko helburuak betetz, baina EZ ordeztu, GASTUAREN ARAUA.

3.- Udalaren eta bere organismo autonomoen 2015eko aurrekontua DIRUZAINZAKO GERAKIN LIKIDO positiboa lortuz likidatu da, kasu guztietan, eta ondorengo kopuruengatik:

Udala: 8.659.389,18 euro.

Euskaltegia: 142.009,28 euro.

Kiroldegia: 190.850,08 euro.

Musika Eskola: 86.162,86 euro.

4.- 2015eko Aurrekontu bateratuaren likidaziotik ondorioztatzen den aurrezki garbia, finantza iraunkortasunaren adierazle bat, dena, 4.143.564,45 eurokoa da.

Sarrera arruntak: 17.519.164,15

Gastu arruntak: -12.843.268,57

4.675.895,58

Zorren amortizaz. : -532.331,13

4.143.564,45

Beraz, txosten honek ondorengo adierazten du:

- Plan ekonomiko-finantzarioaren ordeztu, Udalbatzari Komunikazioa aurkezteko baldintzak betetzen direla.
- 2015eko Aurrekontuaren likidazioan GASTU ARAUAREN HELBURUA URRATUTA gertatu arren, aztertutako informazio ekonomikotik ateratzen den ondorioa da Beasaingo Udalaren EGOERA FINANTZARIOA IRAUNKORRA dela eta aipatutako urraketaen ondorioz ez dela konprometitu gertatzen.

6.- ALKATEAREN EBAZPENAK. 2016-04-25etik 2016-05-21era bitarte emandako Ebazpenak.

Ezagutzera eman dira, Alkatea jaunak 2016-04-25etik 2016-05-21era bitarte emandako Ebazpenak.

7.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean honelakoak aurkeztu dira:

Xabier Matarranz jaunak (EAJ-PNV): “Nik gauza bat esan nahi dut, gehienbat publikoki adierazteko kulturako batzordeburua inoiz ez dela azaldu ekarpenak egitearen aurka. Egunkarian esaldi hau azaltzea, hots: “...que para que la siguiente no desprecie las aportaciones de los demás...”, Santi, me parece que es aprovecharse y hacer ruido donde no hay que hacerlo. Te agradezco lo que has puesto por tu parte, pero poner esa frase al final de la carta que se publicó en el periódico...Sabes que has estado invitado por mi personalmente a una reunión de la tamborrada y a otra de la comisión de fiestas y no has asistido a ninguna. Las aportaciones se pueden despreciar si existen, pero si no existen...A modo de estilo, te recordaría algo que a mi me enseñaron hace mucho tiempo, y que dijo Plutarco: los toneles vacíos y los tontos, son los que más ruido hacen. Hacer ruido es muy peligroso en la vida.”

Santi Urdampilleta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Agradezco mucho tu crítica y coincidido contigo en que los más tontos son los que más ruido hacen, y para muestra un botón, por la nefasta gestión que has hecho con las jaimas y demás, el mosqueo descomunal que tienen los vecinos y el ruido descomunal que se ha llegado a percibir por parte del vecindario del centro. Estoy totalmente de acuerdo contigo en cuanto a los tontos se refiere.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Decir que la gestión no es personal, la gestión la asumo yo.”

Santi Urdampilleta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “A mí no se me ha invitado a ninguna de esas reuniones oficialmente. Sólo se me invitó a la presentación de los carteles y tuve que preguntar si era como público o como miembro de la comisión. En la comisión de cultura hay más miembros que están trabajando y si no me equivoco, tampoco se les ha invitado. Estoy hablando de invitación por parte del técnico de cultura. Ayer o ante ayer recibí una invitación por parte del técnico y acudí.”

Xabier Matarranz jaunak (EAJ-PNV): “29 de febrero, siete de la tarde, reunión para hablar exclusivamente de la tamborrada. Santi Urdampilleta dos Santos estaba invitado personalmente. No hubo convocatoria oficial, pero si una invitación por teléfono y te dije que eras parte importante porque tu has estado implicado en la tamborrada durante muchos años, y me interesaba que tomaras parte en esa reunión. Santi no apareció a esa reunión.”

Santi Urdampilleta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “2En cualquier caso, pienso que no tiene más recorrido, pero me alegro y si todo esto te ha servido para reflexionar, de algo ha servido.”

Alkatea jaunak gogorazi du, astelehenean, hilak 30, 8,30etan hauteskunde-mahaien zozketa egingo dela.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zazpiak eta hogeietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.